

Jantzi ta azokara joango naz egurastera; azoka ingurua, barriz, jentez gaiñezka aurkituko dot. Osaba etorriko yat ariñeketan, eta esan: "Galduko zara, ene seme. Itxi egidazu, otoi; besoetan eroango zaitut !" Eta nik erantzungo dautsat: "Baiña, osaba, ez al dakusu aita baizen andi nazala ? Bakarrik etorri bear dot azokara". Eta osabak: "Bai, egia da. Zoaz noranai araxe, onezkerogizon egiña zaitugu-ta".

Amak, ezkotegitik biurtzean, nik neure giltzez kutxa edegiten dakidan ezkerog, ugazabandrari dirua emoten aurkituko nau. Eta esango daust: "Zer egiten dozu, zoro orrek ?" Nik erantzungo : "Baiña, ama, zuk ez al zenkian? Ni, aita lez, andi nozu dagoneko, eta neure ugazabandreari ordaindu bear dautsat". Eta nire amak bere kolkorako : "Emon dagiola dirua nai daunari, onezkerogizon egiña baita".

Urrilleko opor-aldietarako, nire aita etxera itzuliko da, ta ni oindiñokarren ume nazala uste izanik, oski barri ta zikiriozko jantzitxoak ekarriko daustaz. Eta nik esango dautsat: "Dada'ri emiozuz, aita, ni zu baizen andia nozu-ta". Eta aitak, bere baitan gogartuz : "Egia da. Errazoia dau. Berak erosi daike, onezkerog, berari ederren yakon jantzia, gizon egiña da-ta".

AMABIAK

Ama, nik ez dot geiago ikasi nai ! Goiz guztian liburu onegaz !

Amabiak baiño ez dirala diñozu zuk. Bedi, baiña areago ez ba'litz be, begira : zuk ez al daki-zu, eguerdira ezkeru, arrastia dana ?

Niri oso errez yat eguzkia an arroz-sail aren atzanean dagoala iruditzea, bai ta arrantzale zarra urtegi ondoan dabillega be, aparitarako bedartzar billa.

Ara, nik begi biak itxi ta madarraren itzala gero ta baltzago begitantzen yat, idoi edo potzuko ura be baltz-dizditsu biurtu da.

Gabaz be amabiak izan ba'daitekez, zergaitik gau ez izan am.abietan ?

29

IDAZLEA

Aitak, zuk diñozunez, liburu asko idazten ditu, baiña nik ez dot arek idazten dauan tautik be aituten. Gau osoa egin dot zuri gauzak irakurten. Esaidazu, ta zuk ulertzen zendun berak esan nai ebana ? Zuk bai dozula, ama, ipuin-jario ederra ! Zergaitik ez ete dauz, aitak be, orrela idazten ? Bere amak ez ete eutson iñoiz be edestu erraldoi, maitagarri ta errege-alabaen kondairarik ? Edo aitzu egin ete yakoz guztiak ?

Egunik askotan, eun bider gitxienez deiegin bear dautsazu ezkotegira baiñu artzen joan daiten. Eta jateko be zain zagokioz, eta barrero berotu bear izaten deutsazu janaria, eta berak idatzi ta idatzi